# Aitortzaileen% 37k kuota osoaren ia % 68ko ekarpena egin zion 2011ko PFEZren tarifa orokorrari

*Erdiko (120.869 aitortzaile) eta erdiko-altuko (11.442) tarteei dagozkie, eta tarte txikiagokoen (221.737 aitortzaile) nahiz altuen (2.052) ekarpena, berriz, % 24,6koa eta % 7,8koa da, hurrenez hurren*

Jueves, 04 de octubre de 2012

Nafarroako Zerga Ogasunak 2011ko PFEZren kanpainari dagozkion datuen berri eman du. Haren arabera, 356.100 pertsonak errentak barnean hartzen dituen aitorpenak aurkeztu dituzte, behin murrizketak aplikatuta, 5.992,8 milioi euroko oinarri likidagarri orokorrarekin eta 1.439,2 milioi euroko kuota osoa.% 24,02ko batez besteko karga da.



Nafarroako Zerga Ogasuna.

Nafarroako Zerga Ogasunak 2011ko PFEZren kanpainari dagozkion datuen berri eman du. Haren arabera, 356.100 pertsonak errentak barnean hartzen dituen aitorpenak aurkeztu dituzte, behin murrizketak aplikatuta, 5.992,8 milioi euroko oinarri likidagarri orokorrarekin eta 1.439,2 milioi euroko kuota osoa.% 24,02ko batez besteko karga da.

Kopuru horren bi heren, % 67,51, erdiko tarteetatik dator (17.526 eta 45.480 euro arteko oinarri likidagarriarekin) eta erdikoak-altuak diren tarteetatik (45.480 eta 88.000 euro artean), oinarri likidagarriarekin aitortzaileen % 37k aurkeztutakoak. Tarte baxuenek (17.526 eurotik beherako oinarri likidagarriarekin) aitortzaile gehiago biltzen dituzte, kopuru guztiaren % 62, baina haien ekarpena kuota osoaren % 24,63 da. Azkenik, tarte altuek (88.000 eta 300.000 euro artean) eta oso altuek ( 300.000 eurotik gora) gainerako % 7,85 ematen dute, eta 2.052 pertsnak aitortzen dute.

Kargaren gehikortasuna 3.825 eurotik beherako errenta duen

aitortzaile bati dagokion % 13,07tik hasi eta errenta oso altua duenak batez beste ordaintzen duenaren % 42,57 arte doa.